

"Pedro Páramo"
Juan Rulfo
euskaratzailea: Juan Garzia Garmendia
Ibaizabal, 2002

Beti da gozatzeko modu eta bide Rulfo irakurtzea, bai *Lautada sutan* (Koldo Etxabek itzulia) eta zer esanik ez *Pedro Páramo* hau, Juan Garziaren eskuetatik pasa eta gero. Gozatzeko eta ikasteko modua, Juan Garziaren itzulpena, aberatsa baita oso, txukunaz gainera. Halako liburuak irakurri ondoren, pentsatzen hasten naiz euskal literaturak baduela oraindik etorkizun pittin bat, munduko beste hizkuntzen aldean, eta ez azpian, berez euskaraz sortutako testua balitz bezala irakurtzen baita. Gure hizkuntzarekin ditugun zorrak kitatzeko saioa noski, irakurketarena, besterik gabe, liburu ederrak berez eta nahi gabe irakurtzen baitira, ahalegin berezirik gabe.

Beste kontua da Rulforena (1918-1986), ezaguna mundu guztian aipatutako liburuen egile izanagatik; hain ezagunak liburuak, non haiei buruzko tesi ugari kaleratuak baitira dagoeneko, liburuetan oinarrituriko filmak ere ugariak diren bezalaxe. Ez alferrik eta Juan Garziak berak, hitzaurrean isurtzen duen jakituriaren adibide, esaten baitu Rulfo izan zela liburu honetan "errealismo magikoa" deitu izan den horren sortzaileetako bat ("sorburu" hitza idazten du Juan Garziak), eta ez dut uste baieztapen hori zalantzan jartzekoa denik. Liburuak hitzaurreaz gainera, badu hitzatze edo gibel hitza edo hondar solasa (Juan Garziaren mintzairan), Carlos Blanco Aguinagak idatzia, non jaiotzez irundar den idazle, ikerlari eta irakasleak —Rulfo bera haragiz eta ez letraz ezagututakoa— aipatzen duen Rulforen lasaitasuna, hitz egiteko (bere buruarekin izan ezik, literatura, besteren artean norberak bere buruarekin hitz egiteko ariketa baita) zuen zailtasuna. Polita da, baiki, Blanco Aguinagaren testua, eta polita da Rulfok Comala asmatuaren gainean eraikitako mundua, gero Juan Garziak zimentu eta guzti, gurera ekarri duena.

Ez da gutxi.

El Diario Vasco, 2002-07-14